

## **KALE NEURKETEN EMAITZAK 1989-2011**

### SARRERA

- Lehen kale neurketa 1989an egin zen. 1989tik 1999ra kale neurketak bi urtetik behin egin ziren, eta 2000tik 2011ra urtero.
- Neurketak behaketa bitartez egiten dira.
- Urtero garai berdinean egiten dira, urriaren erdi inguruan. Neurketa bakoitzean 5.000 lagun baino gehiago behatzen dira.
- Bi astetan zehar gune eta giro desberdinetan egiten dira neurketak.

### ONDORIOAK

- Urteak banaka hartuta ateratzen diren datuak ez dira oso esanguratsuak; gorabehera handiak agertzen dira, eta ez dute ondorioak ateratzeko balio. Izan ere, kontuan izan behar da egun horretan gune horretan egon daitekeen ekitaldi puntual batek (bilera bat, ikastaro bat, hileta bat...) eragin handia duela erabileran. Ikus euskararen erabilerari dagozkion adibide hauek:
  - Amañan: 2001ean %7,05 eta 2003an % 24,1
  - Ipuruan: 2011n %50,60 eta 2007an %13,34
  - Urkin: 2003an %28,70 eta 1991n %6,8
  - Erdigunean: 1991n %14,3 eta 2007an %39,8
  - Urkizun: 2004an %15,7 eta 2008ean %34,00
- Urteak hamarnaka hartuta, hau da, 1989-2000 eta 2001-2011, euskararen erabileran gorakada ikusten da, batez ere gazte giroan.

- 20 urteko datuak kontuan hartuta, berriz, konstante batzuk badaude, eta ondorio batzuk atera daitezke:
  - 1989-2000 artean batez besteko euskararen erabilera %20,58koa izan zen
  - 2001-2011 artean batez besteko euskararen erabilera % 24,02koa izan da.
  - Euskararen erabilera:

	<b>1989-2000</b>	<b>2001-2011</b>
UMEAK	33,42	39,80
GAZTEAK	16,01	28,57
HELDUAK	14,28	18,75
EDADETUAK	27,11	20,90
<b>GUZTIRA</b>	<b>20,58</b>	<b>24,02</b>
AMAÑA	15,58	14,87
IPURUA	24,80	31,52
URKI	13,06	18,41
HERRI ARDATZA	26,17	25,80
URKIZU	22,86	24,75
<b>GUZTIRA</b>	<b>21,36</b>	<b>24,02</b>
JOLAS PARKEAK	28,59	30,63
EROSKETAK	20,30	17,57
TXIKITEOA	18,53	22,92
GAZTE GIROA	21,73	29,17
FAMILIA	22,77	24,23
<b>GUZTIRA</b>	<b>21,36</b>	<b>24,02</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>20,58</b>	<b>24,02</b>

- Adinaren arabera euskara gehien erabiltzen dutenak:
  - UMEAK: %37,55
  - GAZTEAK: % 24,14
  - EDADETUAK: % 23,10
  - HELDUAK: %17,17
- Auzoka:
  - IPURUA: %29,46
  - HERRI ARDATZA: %25,92
  - URKIZU: % 24,16
  - URKI: % 16,77
  - AMAÑA: % 15,10
- Giroaren arabera:
  - JOLAS PARKEAK: %29,99
  - GAZTE GIROA: % 26,85
  - FAMILIA GIROA: % 23,73
  - TXIKITEOA: %21,55
  - EROSKETAK: %18,43